


## 1- BALIO ERANTSIA

Gaur egun, lanpetutako sozietate batean bizi gara, bai heldu zein ume alde batetik bestera gabiltza gure egunerokotasunean. Batzuk lan egiten dutelako, beste batzuek klasera joan behar dutelako edo ekintza desberdinak egin behar ditugulako, denbora libre nahiko eskasa daukagu gureekin denbora pasatzeko. Izan ere, Espainiako gurasoen %72-k, sentitzen du umeak behar duten arreta ez diotela ematen. Hauetako %74-k lanari leporatzen dio denbora falta garrantzitsu hau.

Bestetik, 65 urte baino gehiagoko pertsonen %38,8-k seme alaben arreta behar dute. Izan ere; Espainian 65 urte baino gehiago duten 2,22 milioi pertsonak adierazten du norbaiten laguntza behar duela bizitzarako ekintza desberdinak egiteko, hala nola; erosketak, gestioak, janaria prestatzeko...

Bestalde, Espainian 4.3 milio pertsona beste batekiko menpekoak dira. Hau da, Espainiako populazio osoaren %11 desgaitasuen bat dela eta beste pertsona batekin egon behar dira denbora gehiena. Horretaz aparte, hauetako %25-a.

Elbarrituen kopurua urteen zehar (milako)



Hau guztia jakinda, pertsonen zainketa eta laguntza hobetuko duen sistema baten beharra ikusi dugu. Hau dela eta, guk aurkeztu dugun “produktua” zainketetan oinarrituta dago. Horretarako "zaintzen" telefono aplikazioa aurkeztu dugu. App honen bidez, zainketa beharra duten pertsonak eta lan hauek egiteko prest dauden pertsonak kontaktuan jarriko ditugu, egun edo ordukako zaintza edo laguntza lana eskainiz. Aplikazioarekin proposatu nahi duguna da, familiakide edota lagunak ahal ez duten momentuetan APP-ean erregistratu eta guk espreski aukeratu ditugun langileetatik norbait hautatu eta denbora konkretu batez kontratatu. Holan gure lankideak pertsonaren zainketetaz arduratzen den bitartean, zerbitzua kontratatu duen familiakidea/lagunak denbora gehiago izango du jarduera pertsonalak egin ahal izateko.

Hau guztia jakinda, guk aplikazioarekin bete nahi ditugun helburuak hauek dira:

- Maila ekonomiko baxuko familiei laguntzea beste familiakide edo lagun bateri zainketa arloan laguntzeko, holan denbora gahiago izango dute bestelako jarduerak egiteko, hala nola, lan egiteko.
- Lanpostuak sortu: Izan ere, zainketetan oinarritutako langileak kontratatuko ditugu.
- Denbora aurreztu: Bezeroak jarduera berak egin beharrean, gure zerbitzuetako bat aukeratzean, gure langileek eskatutakoa egingo du (zainketak, pertsona batekin denbora pasa, norbait leku batera eraman...). Holan bezeroak denbora irabaziko du beste jarduera batzuk egiteko, hala nola; lanaldia hastea.
- Norbait zaindu, leku batera eraman, denbora pasa...: Hauek izango dira eskainiko dizkiogun zerbitzuak bezeroari.